


2011ko ekainaren 20ko Aginduak
arautu egiten ditu, hezkuntzan,
**lanean jazarpen
sexista edota morala**
gertatzen den kasuetan prebentzio
neurriak eta jarduteko prozedura.

Informazio hori eta bestelako informazio
osagarria hemen dituzu eskuragarri:
www.hezkuntza.net



Psikosoziala



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Argiteraldia: 2011ko abenduan

Argitaratzailea: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa
Saila.

Egilea: Lan Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua.

Diseinu grafikoa: Bell Comunicación

Inprimatzea: Gráficas Dosbi S.L.

Lege-gordailua: VI 779/2011



AURKIBIDEA

or.

SARRERA	2
I. KAPITULUA. Xedapen orokorrak (1. artikulutik 6.era)	5
II. KAPITULUA. Laneko jazarpen moral eta sexista kasuak ebazteko prozedurak. BITARTEKARITZA FASEA (7. artikulutik 12.era)	10
III. KAPITULUA. Laneko jazarpen moral eta sexista kasuak ebazteko prozedurak. IKERKETA FASEA (13. artikulutik 17.era)	14
IV. KAPITULUA. Batzordeak jarduteko prozedura. (18. artikulutik 23.era)	18
V. KAPITULUA. Prozeduraren bermeak. (24. artikulutik 28.era)	21
XEDAPEN GEHIGARRIAK	23
AMAIERAKO XEDAPENAK	24
ERANTSIAK:	
• Laneko gatazkaren ondoriozko bitartekotza-eskaera	25
• Laneko jazarpenaren salaketa	26

AGINDUA, 2011KO EKAINAREN 20KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETAKO SAILBURUARENA, LANEAN JAZARPEN SEXISTA EDOTA MORALA GERTATZEN DEN KASUETAN PREBENTZIO NEURRIAK ETA JARDUTEKO PROZEDURA ARAUTZEN DITUENA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN ARLOAN.

Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak ezartzen du laneko erakunde guztiek (administrazio publikoek barne) sustatu behar dutela langileen lan-baldintzen hobekuntza eta handitu egin behar dutela beren segurtasun eta osasunaren babes maila, galerak edo kalte fisikoak eragin ditzaketen edota langileen osasun psikikoa kaltetu dezaketen arriskuei aurrea hartzeko eta babesa bermatzeko.

Era berean, Langileen Estatutuaren 4. artikulua xedatzen duenaren arabera, lan-eskubidea da «norbere intimitatea errespetatzea eta duintasuna aintzat hartzea, jazarpenaren (...), jazarpen sexualaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako babesa barne». Eskubide hori bat dator LANEren deklarazioekin eta EBko zuzentarauekin, egoera horiei aurre egiteko beharra aitortzen baitute.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari buruzko egungo Legeriak zuzenean agintzen dio administrazio publikoari jazarpen sexistari aurre egiteko. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Legeak 48. artikuluan arautzen ditu laneko jazarpen sexuala edo sexista eta sexuagatiko jazarpena prebenitzeko neurri zehatzak (berezko izaeradunak eta berdintasun-planetik bereziak).

Euskal botere publiko guztietan aplikatzekoa den Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 83.b) artikularekin bat etorritik, hauxe dio bere 43.2 artikuluan: «jazarpen

sexistak, diziplinazko hutsetan, oso larriaren maila izango du euskal administrazio publikoetako langileentzat».


Artikulu bereko 3. puntuan, Legeak adierazten du Euskal Administrazio Publikoek «martxan jarri beharko dituztela langileei zuzendutako politikak, laneko jazarpen sexista prebenitzeko eta desagerrarazteko. Politika horiek, beste neurri batzuen artean, jarduteko protokolo batzuk prestatzea eta aplikatzea aurreikusi beharko dute».

Testuinguru horretan eta zuzenbide-esparru horretan hartuko du konpromisoa Sail honek, lanean gatazkak direnean eta jazarpen moral edota sexistak salatu direnean jarduteko prozedura bat abian jartzekoa.

Testu honek biltzen du lanean jazarpen moral edota sexista gertatu izanaren berri jakin denean edo salaketak jarri direnean jarraitu beharreko jarduteko prozedura. Testuaren edukia adostu dute Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeko kideek, eta Hezkuntza Administrazioan prebentzioa, segurtasuna, laneko osasuna eta emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna, baita diskriminazioa ez jasotzeko eskubidea ere, integratzeko nahiaren adibide argia da. Gainera, langile guztiek beren nagusi eta lankideengandik berdintasun, errespetu eta duintasunezko tratua jasotzeko beharrari erantzuten dio.

Prozeduran zehaztuko da, alde batetik, bitartekaritza deituriko alde aurreko fasea, eta bere helburua izango da langileen arteko gatazkak edo antolakuntzakoak azkar eta eraginkortasunez konpontzea, hasierako haserrea larriagotu eta iraunkortu ez dadin. Ildo horretatik, helburu hori lortzeko biderik eraginkorrena dela uste dugu langileen kudeaketaz arduratzen diren organoak jokabide mota horiek prebenitzen eta gidatzen inplikatzeko.

Hala ere, garrantzitsua da jakitea lanean gertatzen den jazarpen morala, hau da, lanean denbora luzez esetsia izatea, eta jazarpen sexista laneko arrisku larriak direla eta jazarpena pairatzen duenaren duintasun pertsonal edota profesionalari erasotzen diotela. Horrez gain, argi eta garbi gairatzen dituzte pertsonen arteko ohiko gatazken mugak, izan ere, kalteak eragin diezazkiokete pertsonaren osasunari, eta batzuetan oso zaila izaten da horiek konpontzea. Hori dela eta, eta bitartekaritza-faseak huts egingo balu, ikerketa fasea deritzona garatu da. Fase horri esker, eta ikerketa sakon baten ondoren, beharrezko neurriak hartu ahal izango dira, beldurtzeko helburua duten jokabideei amaiera emateko eta biktimen eskubideak eta, batez ere, osasuna babesteko.



Bi faseon garapena arau honetan dago zehaztuta eta, gainera, fase bakoitzaren azalpenarekin bat, bakoitzari dagozkion jardunbideak egiteko epe zehatzak txertatu dira. Epe horiek nahiko laburrak dira, prozedura premiarik gabe langileen osasunaren kalterako luzatzea ekiditeko.

Nolanahi ere, prozedura osoaren oinarria da (doktrina zientifiko gaurkotuenari, nazioarteko erakundeen orientabideei (LANEren gidak eta hitzarmenak) eta EBko zuzentarauei jarraiki laneko jazarpen moralak «laneko indarkeria» kontzeptu orokorrari erantzuten diola eta gupidarik gabe eten behar dela.

Amaitzeko, azpimarratu behar da Administrazio honek langileen artean emakumeen eta gizonen tratuan berdintasuna eta langileen eskubideak errespetatzeko informazioa eta hezkuntza sustatu nahi dituela. Horri dagokionez, ezinbestekotzat jotzen dira laneko oinarrizko printzipio eta eskubideei buruzko Lanaren Nazioarteko Erakundearen Deklarazioa, laneko arriskuen prebentzioari buruzko legeria eta emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari buruz zuzenbide-esparruak xedatutakoa, 2002/73/CE zuzentarauari, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legeari eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarri-rako 3/2007 Lege Organikoari jarraiki.

Eta horri jarraikiz,
XEDATZEN DUT:

I KAPITULUA

Xedapen Orokorrak

1 Artikulua

XEDEA

1. «Jazarpenzat» hartzen dira ekintza, jokabide, adierazpen edo eskaera diskriminatzaile, mingarri, laidogarri, kikilgarri edo indarkeriazko guztiak, baita bizitza pribatuan bidegabe sartzea ere. Hain zuzen ere, eta zerrenda itxia ez izan arren, jarraian azaltzen diren hipotesiak sartzen dira:

a. Larderia:

Eraso errepikatua edo etengabea, pertsona batek edo gehiagok burututa, ahozkoa, psikologikoa edo fisikoa; lantokian edo lanarekin lotuta egina, eta ondorio moduan pertsona babestu bati iraintzea, gutxiestea, laidestea, behartzea edo diskriminatzea duena. Larderia hainbat modutan agertzen da:

- I pertsona babestu bat bere lanbideetik kanpo uzteko edo bakartzeko neurriak izaten dira.
- II eraso etengabeak eta kaltegarriak egiten dira, errendimendu pertsonalarentzat nahiz profesionalarentzat.

III pertsona babestu baten ospe pertsonala edo profesionala manipulatzeke zurrumurruek zabaltzen dira, izena zikintzeko edo barrengarri uzteko;

IV gehiegikeria erabiltzea, pertsona baten lana etengabe gutxiesten da, helburuak lortzeko arazoizkoak ez diren edo ezinezkoak diren epeak finkatzen dira edo burutu ezin diren lanak agintzen dira;

V pertsona babestu bat neurriz kanpo kontrolatzen da edo horren errendimendua ez da modu egokian kontrolatzen;

VI baimen- eta prestakuntza-aldiak modu ulertezinean edo arrazoirik gabe ukatzen dira.

VII bere lanpostuari dagozkion zereginetatik pixkanaka kendu egiten da.

b. Jazarpen sexista:

Hitzezko edo hitzik gabeko jokabidea, edo jokabide fisikoa, pertsona batekin, hark nahi gabe, haren sexua dela-eta edukitakoa, eta helburu edo ondorio duena haren duintasunari eraso egitea, edo hura kikiltzeko, harekin etsaitzeko, hura iraintzeko, laidotzatzeke edo mintzeko giroa sortzea. Jokabide hori sexuala bada, jazarpen sexuala izango da.

- I Eskatu gabeko eta nahita egindako kontaktu fisikoa, edo beharrezkoa ez den hurbilketa fisiko gehiegizkoa;
- II Pertsona babestuaren gorputzari, itxurari edo bizimoduari buruz, izaera sexualeko zeinu edo adierazpenak behin eta berriro egitea.
- III Telefono bidezko dei, gutun edo posta elektronikoko bidezko mezu iraingarriak.
- IV Ia Behin eta berriro egindako jazarpena, baldin eta sexualitateari doakionez integritatearen kontra egiten bada edo kalterik eragiten badu.
- V Baimenik gabe, eduki sexual agerikoa duten Interneteko grafikoak, binetak, argazkiak eta irudiak erakustea edo zabaltzea, baldin eta sexualitateari doakionez integritatearen kontra egiten bada edo kalterik eragiten badu;
- VI babestutako pertsonaren bizitza pribatuaren inguruan egindako galderak eta iradokizunak, baldin eta sexualitateari doakionez integritatearen kontra egiten bada edo kalterik eragiten bada.
- VII broma eta proposamen sexual agerikoak, baldin eta sexualitateari

doakionez integritatearen kontra egiten bada edo kalterik eragiten badute;

2. Gizakien gorputz- eta buru-osasunari eta ongizateari kalte egiten die aipatu bezalako jokabideek. Hortaz, pertsonen egindako tratu txar fisiko edota psikologikoa gisa sailka daitezke aipatu portaerak. Horrez gain, Hezkuntza Administrazioaren helburuak eta jarduera hondatu ez ezik, bere izen ona ere zikintzen dute.

Horregatik guztiagatik, prebentzio-neurri gisa eta lan-ingurunean baldintza psikosozialak hobetzea aldera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eratu eta sustatu du bitartekaritza edota kexa-prozedura horiek abian jartzea.

2 Artikulua

APLIKAZIO-EREMUA

Agindu honetan bildutako xedapenak aplikatuko zaizkie unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan lan egiten duten langile publikoetara eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden ikastetxe, hezkuntza-instalazio edo kudeaketan lan egiten duten irakasleei.

3 Artikulua

KALTE EDO KALTE EGITEKO MEHATXUA

1. Agindu honetan aurreikusitako prebentzio-neurriak eta esku-hartze prozedura aplikatuko dira 1. artikuluan deskribatutako jokoarek kalteak eragiten badituzte pertsonen osotasun moralean eta psikikoki nahiz fisikoki kalte egiten badute edo kalte egiteko mehatxua egiten badute.
2. Prebentzio-zerbitzuko zerbitzu mediakoak jazarpena pairatutako pertsonaren (edo, beharrezkoa bada, beste pertsonen) egoeraren jarraipena egingo du, behar duen laguntza mediko eta psikologikoa eskaintze aldera.

4 Artikulua

BAZTERKETAK

1. Laneko jazarpen moraletik kanpo geldituko dira pertsonen arteko gatazka iragankorrak eta une jakin batean antzemandakoak, pertsonen artean gerta baitaitezke eta laneko antolakuntzan eta garapenean eragin baitezakete, baina ez da horien ondorio eta helburua gatazkan inplikaturakoak pertsonalki nahiz

profesionalki ezereztatzea. Nolanahi ere, prozedura geldiarazteko erabakia arau honen 18.1.a) artikuluaaren arabera hartuko da.

2. Gatazka kasu horietan (bi langileen interesak bateraezinak diruditenean), langileen kudeaketa-organoak izango dira lidergo-lanak egingo dituztenak eta diligentzi egokiak burutuko dituzte ezkutuko gatazkek konpontzeko.

5 Artikulua

PRESTAKUNTZA

1. Informazio, hezkuntza, eta trebakuntza elementuak dituzten estrategiak azaldu eta aplikatuko dira, lanean jazarpen morala eta sexuala prebenitzeaz gain, Hezkuntza Administrazioari lotutako pertsonen jarrera eta jokabideengan eragina izateko, Agindu honen nahi eta asmoak jarraiki.
2. Bitartekaritza-lanak egiteko izendatuko diren pertsonak gai horri buruzko prestakuntza espezifikoa jasoko dute eta prestakuntza horrek barne hartuko ditu, besteak beste, legezko informazioa, trebetasun sozialak, emakumeen eta gizonen tratu berdintasuna eta jarduteko prozedurak. Horren helburua izango da laneko jazarpen morala eta

jazarpen sexistari dagokionez sor daitezkeen gatazkei behar bezala aurre egiteko prestatzea.

3. Prestakuntza-plan bat abian jarriko da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean, laneko jazarpen moral edo sexista prebenitzeko. Prestakuntza horri esker, langileek identifikatu ahal izango dituzte laneko jazarpen moral edo sexista egoerak, baita kasu horietan jarraitu behar duten prozedura ezagutu ere. Aurreikusitako prestakuntza-jarduera horiek euskaraz eta gaztelaniaz eskainiko dira.
4. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Prebentzio Zerbitzuak arduratuko dira gai horri buruzko prestakuntza- eta informazio-jarduerak egiteaz.
5. Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordean ezarriko dira prozedura hori Saileko langile guztiengana hedatzeko beharrezko mekanismoak.

6 Artikulua

LANEKO JAZARPEN

MORAL EDO

SEXUALA JASAN

IZANAREN ZANTZU

ARRAZIONALAK

1. Administrazio honetako langile bat bere lan-esparruan jazarpena jasaten ari denaren zantzu arrazionaltzat ulertzen ditugu Kapitulu honetan adierazi denaren arabera egiazkoak izateko itxura duten susmoak.
2. Laneko jazarpen moral edo sexista zantzu arrazionalen bat badago, ikerketa bat egingo da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailean edota organo periferikoetan. Ikerketa horren helburu bakarra izango da antolakuntzako arazoak antzematea eta konpontzea, esaterako, agintaritza behar bezala erabiltzea, Hezkuntza Administrazioako estandar etiko eta moralak babestea eta langileen eskubideak zaintzea. Hori guztia, euskal administrazio publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoaren aurka joan gabe.

Hartutako kautelazko neurrien aurka joan gabe, ikerketa bertan behera utziko da langileak Lan Ikuskaritzaren aurrean salaketa ipini edo jurisdikzio-arloan demanda bat jartzen badu.

3. Susmoa dagoela ulertuko da dagokion ikerketaren ondoren, Agindu honetako 2. artikuluko 1. puntuan zehaztutako langileen artean jazarpen moral edota sexista gertatu dela dioen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ebazpena eman arte.

II KAPITULUA

Kapitulualaneko jazarpen moral eta sexista kasuak ebazteko.

PROZEDURAK BITARTEKARITZA FASEA

Artikulu 7

XEDEA

1. Fase honetan laneko jazarpen moral edota sexistagatiko gatazkak edota salaketak bizkor, hitz eginez eta bitartekari baten laguntzaz ebatzi nahi dira. Bitartekariak eskainiko ditu jarduteko jarraibideak eta proposamenak, gatazkari amaiera emateko eta hori etorkizunean berriz ez gertatzeko.
2. Hezkuntza Administrazioak hartuko du bere gain bitartekariari jarduera hori egiteko behar duen prestakuntza eskaintzea, baita bitartekari-lanetan lagungarri izango zaizkion adituen aholkularitza ere.

Artikulu 8

BITARTEKARITZA

1. Bitartekaritza-fasea hasiko da jazarpena pairatu duenaren edo haren inguruan lan egin eta gertakarien berri duenaren idazkia jaso ondoren. Idazki horretan bilduko dira salaketa egiten duenak laneko gatazka edota jazarpen moral edota sexistatzat dituen gertakari eta jokabideak. Aipatu gertakariak, gutxienez, azken hamabi hilabeteetan gertatu behar ziren.
2. Bitartekaritza-fase hori borondatezkoa izango da alderdien aldetik, eta horretarako aholkularitza edota laguntza eskatu ahalko diete Prebentzioko Ordezkariei, edo alderdiek konfiantzazkotzat dituzten bestelako pertsoniei.

Fase horretan esku hartzen duten Prebentzioko Ordezkariek ezingo dute parte hartu Agindu honetako 14. artikuluan araututako Batzordean.

3. Bitartekaritza-fasea hasitakoan har daitezkeen prebentzio-neurrien artean ezar daitezke kautelazko neurriak. Horien artean egongo da pertsona salatuarekin lan egiteari uzteko aukera, betiere kontrako edo bidegabeko tratuerik edo erre-presaliarik izan gabe.
4. Idazkia aurkezteko era:
 - a. Salaketa jartzen du(t)en pertsonaren edo pertsonen laneko zentroko zuzendariari aurkeztuta.
 - b. Hezkuntzako lurralde-ordezariari aurkeztuta, baldin eta laneko gatazka edota jazarpen moral edo sexista zentroko zuzendari-kargua duen pertsona bati badagokio. Laneko jazarpen moral edo sexista Hezkuntzako lurralde-ordezariari badagokio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburordeari aurkeztuko zaio.

9 Artikulua

BITARTEKARITZA- PROZEDURAREN ARDURADUNA ETA BITARTEKARIA

1. Zuzendaria izango da bitartekaritza-prozeduraren arduraduna, eta hezkuntzako ikuskaritza-zerbitzuaren laguntza teknikoa izango du.
2. Sailaren ikuskaritza-zerbitzuak bitartekaritza-prozeduretan espezializatutako ikuskari-talde bat osatuko du.
3. Zuzendariak, Ordezkararen bitartez, bitartekari baten esku-hartzea eskatuko du, eta berea dagokion Lurralde-ordezkariek edo, bere kasuan, Hezkuntza Sailburuordeak izendatuko du, esku-hartze hori egiteko sortu den ikuskari-taldeko kideen artean. Ikuskari batek ezingo du erreferentziako zentroetan bitartekari izan.
4. Gatazka zentroko Zuzendariari egokitu bazaio, bitartekaritza-prozeduraren ardura ordezkararen gain geldituko da, eta horrek ere izango du hezkuntzako ikuskaritza-zerbitzuaren laguntza teknikoa.

5. Errealitatea benetan zein den jakiteko asmoz, bitartekaritza prestatzeko beharrezko jarduera guztiak egingo ditu bitartekariak.
6. Bitartekaritza-prozeduraren arduradunak laguntza emango dio bitartekariari bere eginbeharra bete dezan.

10 Artikulua

BITARTEKARITZA- BILERA

1. Bitartekaritza-prozeduraren arduradunak alderdiei idatziz emango die prozeduraren hasieraren berri eta horien borondatezko parte-hartzea eskatuko die. Jasotakoan, eta prozedurarekin jarraituz, alderdiak bilera batera deituko ditu, eta arazoa konpontzen saiatuko da. Egon daitekeen jazarpenari buruz bitartekariaren esku leudekeen agirien kopia erantsiko zaio deialdiari.
2. Epea luzatzea gomenda dezaketen eta idatziz alderdien ezagutzan jarri behar diren arrazoi oinarrituak egon ezean, bitartekariak idazkia jaso ondorengo hamar egun baliiodunen barruan egingo da bitartekaritza-bilera. Epea beste hamar egun baliiodunetara luzatu ahal izango da.

3. Ezinbestekak bultzatuta edo legeak aurreikusitako abstentzio eta errefusate-arrazoiren batean sartuta ego-teagatik bitartekariak ezin izango balu bitartekaritza-bilera burutu, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeak izendatuko du bitartekari-lanak egingo dituen ikuskaria. Izendapen hori behar bezala jakinaraziko zaie alderdiei eta Ikuskaritza-lurraldeburutzari.

11 Artikulua

BITARTEKARITZA- BILERARA BERTARATZEA.

Alderdietako edozein bertaratu ahalko da bilerara eta, horrela nahi badu, Prebentzioko ordezkari batek edo konfiantzazko pertsona batek lagun diezaioke.

12 Artikulua

BITARTEKARITZA- FASEAREN EBAZPENA.

1. Bitartekariak, bitartekaritza-bileratik gehienez ere hamabost egun balioduneko epean, idatziz jasoko ditu:
 - a. Bitartekaritza-fasean egindako jardunbi-deak.
 - b. Bitartekaritza-dokumentuan arazoa konpontzeko proposatu dituen neurriak.
2. Bitartekaritza-dokumentua alderdiek sinatu egingo dute, dokumentua idatzi denetik bost egun baliodunen barruan. Sinadurak alderdiak edukiarekin ados daudela esan nahi du. Alderdiek sinatzeaz gain, bitarte-

kariak eta bitartekaritzaren arduradunak ere sinatuko dute.

3. Bitartekaritza-prozeduraren arduraduna bitartekaritza-dokumentuan adostutako neurriak aplikatu eta zaintzen direla bermatuko du, eta Prebentzio Zerbitzuari emango dio horren berri bere esku-men-arloaren baitan jardun dezan.

III. KAPITULUALANEKO

jazarpen moral eta

sexista kasuak ebazteko

PROZEDURAKIKERKETA

FASEA

13 Artikulua

LANEKO JAZARPEN

MORAL EDO SEXUALA

EBAZTEKO FASEAREN

HASIERA.

1. Laneko jazarpen moral edo sexuala-gatiko salaketak bitartekaritza-fasean argitu ez direla ulertuko da honako kasu hauetan:
 - a. Aldiertako batek bitartekaritza-fasea edo bitartekariak proposatutako neurriak errefusatu dituenean.
 - b. Ezinbestekak bultzatuta bitartekaritza-fasea egin ez bada.

- c. Bitartekaritza-fasean proposatutako neurriak laneko gatazka edo jazarpen moral edo sexista ebatzi ez badute.
2. Laneko jazarpen moral edo sexista ebazteko fasea jarraian azaltzen diren puntuak jarraituz beteko da:
 - a. Gatazka ebazteko salaketa bat bitartekaritza-fasean ebatzi ez bada, alderdietako bakoitzak jar dezake jazarpen moral edo sexistagatiko salaketa prozedurarekin jarraitzeko.
 - b. Aipatu salaketa hori jartzeko epea bitartekaritza-prozesua amaitu denetik hogeita hamar egun baliodunetako izango da.
 - c. Salaketa Hezkuntzako lurralde ordezkariari igorriko zaio, ustezko laneko jazarpen moral edo sexista berari egokitzen ez bazaio. Kasu horretan, Administrazio eta Zerbitzuen

Sailburuordeari igorriko zaio. Bitartekaritza-dokumentuaren kopia (hori egin bada) eta beharrezkoak diren bestelako dokumentuak erantsiko zaizkio idazkiari.

3. Agindu honetako 1. artikuluan azaldutako kasuren baten bat pairatu duenak, salaketa jar dezake Hezkuntzako lurralde ordezkariari aurkeztuta, ustezko laneko jazarpen moral edo sexista ordezkari horri dagokion kasuan izan ezik. Kasu horretan, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari aurkeztuko zaio. Salaketan azaldutako gertakariak, gutxienez, azken hamabi hilabeteetan gertatu behar ziren.

14 Artikulua

IKERKETA

BATZORDEAREN

OSAERA.

1. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak, edo, bere kasuan, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak, Ikerketa Batzorde bat eratuko dute alderdietako edozeinek idazkia jaso denetik hamar egun baliodunetako epean.
2. Ikerketa Batzordea honako hauek osatuko dute:
 - a. Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren ordezkari bat, presidentea izango da eta Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeak izendatuko du.
 - b. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzako kide bat, Hezkuntzako Lurralde Ordezkariek izendatuko du.
 - c. Prebentzioko Zerbitzuko kide bat, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeak izendatuko du.
 - d. Prebentzioko ordezkari bat edo Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren alorreko langileen ordezkari bat. Bitartekaritza-fasean esku hartu duten

pertsonak batzordetik kanpo geldituko dira, Agindu honetako 8.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.

- e. Idazkari bat, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak izendatuko du.

Aipatu esparruko zentral sindikalek proposatuko dute prebentzioaren edo langileen arloko ordezkari kopuru bat, Ikerketa Batzordeko kide izateko, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren barruan sindikatu-hauteskundeetan lortutako ordezkariaren arabera. Zerrenda horretan, gehienez, 10 pertsona aurkez daitezke. Zerrenda horretako izenen artean, alfabeto-ordenean izendatuko da batzordeko kidea izango den prebentzioko edo langileen ordezkaria.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko 4/2005 Legearen 23. artikulua ezartzen duena kontuan hartuta, Ikerketa Batzordea osatuko duten emakumeen eta gizonen kopuruak berdintsuak izan beharko dira. 4/2005 Legearen arabera, ordezkariak orekatutzat joko da, bi sexuek, gutxienez, % 40ko ordezkariak dutenean.

15 Artikulua

BATZORDEKO IDAZKARIA

1. Batzordeko Idazkaria Batzorde bereko kideetako bat izan daiteke, edo Administrazioari langile bat, zuzenbidean lizentziaduna betiere.
2. Idazkari kargua duen pertsona Batzordeko kide ez bada, ez du bozka eskubidea izango.

16 Artikulua

BATZORDEAREN FUNTZIONAMENDU ERREGIMENA

1. Batzordearen funtzionamendua honako hau izango da:
 - a. Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren azaroaren 26ko 30/1992 Legearen xedapenak, kide anitzeko organoen funtzionamenduari buruzkoak.

- b. Agindu honetako xedapenak.
 - c. Batzordearen Barne Funtzionamenduaren Araudiak xedatutakoa.
2. Prebentzioko zerbitzuko kideak ikerketa egiteko beharrezko laguntza teknikoa emango du.
 3. Batzordeko kideek gaztelania nahiz euskara erabili ahal izango dute bileretan eta, era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da deialdi, gai-zerrenda, akta, txosten eta gainerako idazkietan.
2. Jakinarazpenaren datatik aurrera irekiko da alegazioak egiteko epea, bost egun baliodunetakoa izango da.

17 Artikulua

ALDERDIEI

JAKINARAZPENAK

1. Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak edo, bere kasuan, Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzak, jakinaraziko die alderdiei nor diren Ikerketa Batzordea osatuko dutenak, Batzordea eratu denetik bost egun balioduneko epean. Era berean, txostenaren dokumentazio guztiaren kopia igorriko zaie.

IV. KAPITULUA

batzordearen jarduteko

prozedura

18 Artikulua

AURRETIKO EKINTZAK

1. 17.2 artikulua ezartzen duen alegazioak egiteko epea amaitu eta bost egun balioduneko epean egingo da lehen bilera, eta bertan, espedienteko dokumentazioa aztertu eta honako hau erabakiko da:
 - a. Ikerketa amaitutzat ematea, gertaerak laneko jazarpen moral edo sexistazko egintzak ez direla erabakitzen bada. Erabaki hori guztien adostasunez hartu beharko da, behar bezala oinarrituta egongo da, idatziz jasota eta alderdiei komunikatuko zaie.
 - b. Ikerketarekin jarraitzea.

19 Artikulua

IKERKETA

1. Ikerketa Batzordeak ikerketa faseari dagozkion jardunbideak egingo ditu, laneko jazarpen moral edo sexista gertatu den zehazteko.
2. Sailak eta Agindu honetan jasotako organo periferikoek Ikerketa Batzordeak eskatutako guztian lagunduko dute, azken honek ikerketa amaitzeko behar duen informazio guztia izan dezan.
3. Batzordearen lehen bileratik aurrera (ikerketa hasiko dela erabakitzen deneratik aurrera) hilabete bateko epea izango dute ikerketa egiteko. Epe hori beste hilabete batez luzatu ahalko da, bi hilabetez gehienez, eta alderdiei jakinaraziko zaie.

20 Artikulua

BILERA

ALDERDIEKIN

1. Ikerketa egiteaz gain, Batzordea alderdiekin bilduko da, aldi berean edo banaka.
2. Batzordeak deitu ahal izango ditu bilerara jorratu behar den gaiarekin lotura zuzena duten pertsonak, gertakariaren lekukoak izan direlako, edo gaiari buruzko adituak direlako. Kasu horretan, alderdiei jakinaraziko zaie nor diren, informazio gisa, bilerara bertaratuko diren pertsonak.

21 Artikulua

BILERARA

BERTARATZEA

Alderdiak bertaratu ahal izango dira aurreko artikuluan aurreikusitako bilerara, eta prebentzioko edo sindikatuko ordezkariak, edo beharrezkotzat jotzen duten beste edozein pertsonak, lagun ditzake. Nolanahi ere, ezingo dute laguntzaile bat baino gehiago eraman.

22 Artikulua

IKERKETA FASEAREN

EBAZPENA

1. Ikerketa amaitu eta hilabete baten buruan gehienez, Ikerketa Batzordeak txosten bat egingo du, eta bertan zehaztuko da Batzordearen ustez laneko jazarpen moral edo sexista gertatu den ala ez, baita arazoari konponbidea emateko proposatzen diren neurriak ere.
2. Ikerketa Batzordeak txostenaren ondorioak igorriko dizkio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordeari, eta honek emango du dagokion ebazpena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen den irailaren 14ko 233/2010 Dekretuak xedatzen dituen eskumenei jarraiki.
3. Aipatu ebazpenean proposatuko dira gertatutako laneko arriskua desagerrarazi edo gutxiagotzeko neurri zuzentzaile zehatzak, laneko arriskuen prebentziorako indarrean dagoen lege-riak xedatutakoari jarraiki. Era berean, frogatutako gertakariaren arabera, Batzordeari zigor-espeditente bat irekitzeko eskatu ahalko zaio, hutsegite oso larri, larri edo arin bat zigortzeko, enplegu publikoari buruzko indarrean dagoen

legeriarekin bat etorriz. Halaber, neurri zuzentzaileak aplikatzea nori edo nortzuei dagokien zehaztuko da.

23 Artikulua

NEURRI

ZUZENTZAILEAK

APLIKATZEAREN

KONTROLA

Prebentzioko Zerbitzuari dagokio proposatutako neurri zuzentzaileen eraginkortasuna kontrolatzea.

V KAPITULUA

Prozeduraren bermeak

24 Artikulua

ISILPEAN

GORDETZEA

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lotura duen pertsonak, prozedura honetan aurreikusitako faseetako batean parte hartu badu, isilpean gordetzea eskatuko zaio, Euskal Funtzio Publikoaren Legeak ezarritakoari jarraiki.

25 Artikulua

INTIMITATERAKO

ESKUBIDEA

BABESTEA

1. Uneoro bermatuko da prozedura honen edozein fasetan parte hartu duten pertsonen intimitaterako eskubidearen babesa.
2. Prozedura honetan sortutako informazio pertsonala datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak ezarritakoaren arabera tratatuko da.

26 Artikulua

LANGILEEK

OSASUNAREN BABES

OSOA EDUKITZEKO

ESKUBIDEA

Sailak laneko jazarpen moral edo sexista pairatu duen pertsonaren osasuna behar bezala babestea bermatzeko beharrezko neurri zuzentzaileak aplikatuko ditu. Horrez gain, langilearen berrezarpen osoa lortzeko beharrezko laguntza (antolakuntzakoa eta psikologikoa) emango dio.

27 Artikulua

ERREPRESIALIARIK EZ IZATEA

Sailak ziurtatu egin beharko du ondoren zehazten direnek ez dutela jasango larderia, jazarpen, diskriminazio edo errepresaliarik: laneko jazarpen moral edo sexista pairatu dutenak, jazarpenaren arloko kexa aurkezten dutenak; kapitulu honekin bat etorritik edozein prozesutan laguntza ematen dutenak, esate baterako, informazioa emanaz edo lekuko gisa parte hartuz. Hori gertatuko balitz, diziplinazko gaitzat hartuko litzateke.

28 Artikulua

SALAKETA FALTSUA

Ilkerketan frogatzen bada salaketa iruzurrezkoa dela eta salaketa egin duenak salaketa iraindu nahi zuela, diziplinazko neurriak hartuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa

Laneko jazarpen moral edo sexista egoera gertatuko balitz lan-eremu berean dauden Administrazio honetako eta kanpoko enpresa bateko langileen artean, Agindu honetan azaldutako ikerketa-prozedura aplikatuko da. Hala ere, neurri zuzentzaileak aplikatzerakoan, enpresa horien eta Administrazioaren artean koordinatuta aplikatuko dira, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikuluari jarraiki.

Hori betetze aldera, kontratazio-prozeduran esplicituki azalduko da kontratazaileek beren langileak kontrolatzeko eta gidatzeko eskubidea betetzean Agindu honetako edukiak nahitaez ezagutu eta bete behar dituztela.

Bigarrena


Hezkuntza Administrazioak Agindu honetan araututako faseetan zehar ikertu dituen gertakariak delituzko egintzak izan daitezkeela uste badu, Kode Penalaren arauei jarraiki, Fiskaltzari jakinaraziko zaio. Era berean, administrazioako arau-haustezko egintzak direla uste bada, aplikazio-prozedura berezia preskripzio-epe zehatz batzuetara zedarrituko da edota ofiziozko esku-hartzea beharko dute. Beraz, aplikazio-araudiak xedatutakoaren arabera jardungo da.

Hirugarrena

Agindu honetan ezarritako prozeduran araututako faseetako batean esku hartzen duten langileei euskara nahiz gaztelania (ahoz eta idatziz) erabiltzeko eskubidea bermatuko zaie. Era berean, interesatuek Hezkuntza Administrazioarekin erabilitako hizkuntzan jaso beharko dituzte komunikazio edota ebazpenak.

Laugarrena

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailko Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeari jakinaraziko zaio, ohiko eta ezohiko bileretan, Agindu honetan aplikatzekoak diren prozesuei buruz, Datuak Babesteko arauen printzipioak errespetatuz betiere, eta bereizitako datuak bakarrik kontsultatuz.



AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak ahalmena izango du agindu honen garapenerako beharrezkotzat jo daitezkeen alderdi osagarriak garatzeko.

Era berean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak eta Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeko presidenteak agindu honetan azaldutako protokoloa berrikustea egokia den kontsultatuko dio Batzordeari, agindu honen indarraldiak bi urte betetzen dituenean.

Bigarrena

Agindu hau indarrean jarri eta hiru hileko epean Ikerketa Batzordearen barne funtzionamendurako araudia egingo da.

Funtzionamendu-araudi hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Lurralde eta Sektore arteko Osasun eta Segurtasun Batzordeari kontsultatuko zaio.

Hirugarrena

Xedapen hau indarrean jarriko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 20a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,

MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

ESKAERA: BITARTEKARITZA LANEKO GATAZKA DELA ETA

Eskatzailea identifikatzea

SEXUA _____ ADINA _____

IZENA _____

ABIZENAK _____

HELBIDEA _____

LANTOKIA ETA HELBIDEA _____

HARREMANETARAKO TELEFONOA _____

Gatazkako beste aldea identifikatzea

SEXUA _____ ADINA _____

IZENA _____

ABIZENAK _____

HELBIDEA _____

LANTOKIA ETA HELBIDEA _____

HARREMANETARAKO TELEFONOA _____

Lan-gatazkatzat jotzen diren ekintzen zerrenda

(Erantsitako orrietan azaltzen dira) _____

Hori egiaztatzeko, hau dauka:

Hori dena bere sinaduraz berresten du.

_____(e)n, 20____(e)ko, _____-ren _____-(e)(a)n.

Eskatzailearen sinadura

ESKABIDEAREN HELBIDEA _____

Eredu hau www.hezkuntza.net-etik eskura daiteke

SALAKETA: LANEKO JAZARPENA

Salatzailea identifikatzea

SEXUA _____ ADINA _____

IZENA _____

ABIZENAK _____

HELBIDEA _____

LANTOKIA ETA HELBIDEA _____

HARREMANETARAKO TELEFONOA _____

Izapidetzeko, aurrekari hauek azaltzen dira:

1. Salatuaren datuak: _____

2. Lantokia: _____

3. _____ EGUN/ASTE/HILABETETIK hona laneko jazarpenaren biktima dela aitortzen du salatzaileak

4. Laneko jazarpentzat jotzen diren ekintzen zerrenda

Erantsitako orrietan azaltzen dira _____

5. Hori egiaztatzeko, hau dauka:

- Ez du aurrekari zehatzik
- Horren berme diren aurrekariak, agirietan jasoak
- Lekukoak
- Bestelakorik

Zehaztu lekukoaren zerrenda _____

Hori dena bere sinaduraz berresten du.

_____-(e)n, 20__-(e)ko _____-ren _____-(e)(a)n

Salatzailearen sinadura

SALAKETAREN HELBIDEA _____

Eredu hau www.hezkuntza.net-etik eskura daiteke